



MENDAROKO
UDALA

2023KO ABENDUAREN 21EAN OSPATURIKO BATZAR OHIKOAREN AKTA

Bertaratutako Zinegotziak:

ALKATE-LEHENDAKARIA
Enetz Ezenarro Arriola J. (EH BILDU)

ETORRITAKO ZINEGOTZIAK:
Borja Rodriguez Barreras J. (EH BILDU)
Sonia Garcia Raposo A. (EH BILDU)
Dorleta Lazarobaster Arakistain A. (EH BILDU)
Iñaki Arregui Uria J. (EAJ-PNV)
Nerea Isasi Bedayo A. (EAJ-PNV)
Nuria Guerola Horrillo A. (EAJ-PNV)
Amaia Urra Mardaraz A. (EAJ-PNV)

Mendaron eta Udaletxeko Areto Nagusian, bi mila eta hogeitahirugarreneko abenduaren 21ean zazpiak zirela, Udalbatza bildu da ohiko Osoko Bilkura egiteko.

Mahaiburu Korporazioko Alkate Lehendakaria Enetz Ezenarro Arriola izan da.

Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak Erregulatzen duen 7/1985 Legearen 46/2-c artikulua agintzen duena kontutan hartuz, Alkateak, hasera ematen dio Udal Ohiko Osoko Bilkura honi, aurrez konprobatuz, Korporazioko kideen gutxiengo kopurua eta Alkatea eta Idazkaria bertan daudela.

EZIN ETORRIA ADIERAZI ZUTEN:

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: Korporaziokoa den Nerea Etxarri Ubeda Anderea.

Eguneko gai zerrenda:

1. AURREKO SESIOAREN AKTAREN BORRADOREA ONARTZEA, HALABADA (2023.12.01)
2. 2024KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ONARPENA.
3. ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL IHARDUERAK BURUTZEAGATIK EZARRITAKO PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA ARAUTZAILEAREN ALDAKETA.
4. UDAL PARTZUERGOKO KIDE IZATEKO PROPOSAMENA.
5. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA MENDAROKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN LUZAPENA ONARTZEA, ETXEKO ZERBITZUA FINANTZATZEKO.
6. MOZIOA GUTXIENEN PENTSIOA 1080.
7. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

LEHENENGO PUNTUA. AURREKO BATZARRAREN AKTAREN ZIRRIBORROA ONARTZEA, HALABADA.- Batzar honen deialdiari 2023.12.01 datako aurreko batzarreko aktaren zirriborroa lagundurik, Zinegotzi Jaun Anderee inolako behaketarik egin behar duten galdetzen zaie.



MENDAROKO
UDALA

Bat bera ere ez denez aurkezten Udalbatzak ahobatez,

e r a b a k i t z e n d u

2023.12.01 datako Batzarraren Aktaren Zirriborroa onartu, eta honen arabera Aktara jasotzera jo.

BIGARREN PUNTUA. 2024KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ONARPENA.-

Kontuan izanda lanpostuen zerrenda funtsezko dokumentu teknikoa dela, eta, haren bidez, langileen antolamendua egiten dela, zerbitzuen beharren arabera, eta lanpostu bakoitza betetzeko baldintzak zehazten direla.

Bertan, lanpostu guztiak jaso beharko dira, izena, mota eta lanpostuak betetzeko sistema, betetzeko baldintzak, destino-osagarriaren maila, eta, hala badagokio, horiei dagokien berariazko osagarria, eta funtzionarioek bete behar dituzten, edo lan-kontratuko langileek betetzen dituztenean aplikatu beharreko lanbide-kategoria eta araubide juridikoa.

Ikusita Rodriguez Viñals enpresak egindako Lanpostuen Zerrendaren dokumentuak Udaleko lanpostu guzti-guztiak jasotzen dituela, funtzionarioak edo lan-kontratuko langileak bereiziz, eta aurreikusten dituela horietarako bakoitzerako legez aurreikusitako lanpostuak betetzeko moduak.

Lanpostuen Zerrendak jasotzen ditu, era berean, dagozkion lanpostu-mailako osagarriaren eta lanpostu bakoitzerako erreserbatutako berariazko osagarriaren mailak, bete beharreko lanpostuen ezaugarri orokorrak finkatuz.

Ikusita Rodriguez Viñals enpresak egindako Lanpostuen Zerrendaren dokumentuan, banakako fitxa bat egin dela lanpostu bakoitzaren eginkizunekin, eta banaka baloratu dela, lanpostu-mailako osagarriari eta espezifikoiari eragiten dieten faktore guztien balorazio-metodo objektibo bati jarraituz.

Hori guztia kontuaan izanda, aztertu dira, batetik, Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen baterako negoziazio-mahaian egindako negoziazio kolektiboko prozesuaren emaitzaren akta, eta, bestetik, Rodriguez Viñals enpresak egindako lanpostuen zerrenda jasotzen duen dokumentua.

Legez ezarritako tramitazioa egin ondoren, Udalbatzak ahobatez onartzen du

AKORDIOA

LEHENENGOA. Udal honetako 2024ko lanpostuen zerrenda behin betiko onartzea, negoziazio kolektiboaren ondoren sartutako aldaketekin eta espedientean jasotako txostenekin, eranskinean azaldutakoaren arabera eta ondoren esaten diren azalpenak kontuan izanda:

- Lanpostuen balorazioa eginda ordainasariak jaisten diren lanpostuetan lanean diharduten langileei honakoa aplikatuko zaie: Lanpostuan bi urtez jarraian edo hiru urtez etenda lanean jardun duten langileek gradu jakin bat finkatuko dute eta ez dute jaitziko bere maila osagarria lanpostuen zerrenda berri honen ondorioz. Bestalde, berariazko osagarria ere mantendu egingo da osagarri iragankor pertsonal baten bitartez.

- Lanpostuen analisi eta balorazio lanak "faktore bakoitzeko puntuak" esleitzeko teknika analitikoaren bidez orokorki onartutako prozedura operatiboari jarraiki egin dira. Puntuari 21,96 eurotako balorazioa eman zaio.

- Hainbat lanposturi jornada berezia ezarri zaie euren ezaugarriak direla eta. Horrela, data jakin batzuetan (Santa Ana, trinitateak, etab...) egindako lanak lanordu moduan kontabilizatuko dira. Hala ere, lanegun horietan ohiko lanordu kopurua baino gehiago egin behar badituzte, ordu extra moduan hartuko dira azken horiek.



MENDAROKO
UDALA

BIGARRENA. Zerrenda hori Probintziako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren egoitza elektronikoa argitaratzea.

HIRUGARRENA. Horren kopia bat bidaltzea Estatuko Administrazioari eta autonomia-erkidegoko organo eskudunari, hogeita hamar eguneko epean.

HIRUGARREN PUNTUA. ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL IHARDUERAK BURUTZEAGATIK EZARRITAKO PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA ARAUTZAILEAREN ALDAKETA.-

Udal honek egokitzat eta beharrezkotzat jotzen du ondorengo tributuen ordenantza fiskaletan hainbat aldaketa egitea:

- ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL IHARDUERAK BURUTZEAGATIK EZARRITAKO PREZIO PUBLIKOAK

Alkatetzak proposatuta, Udaleko idazkari-kontuhartzailearen txostenekin bat etorritik, eta eztabaidatu eta bozkatu ondoren, Antolaketako Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman du Udalbatzari honako hau helaraztearen alde eta Udalbatzak, ahobatez onartzen du

AKORDIOA

“LEHENENGOA. Ondorez azaltzen diren ordenantza fiskalen aldaketa behin-behinean onartzea, proposamenean agertzen den testuarekin:

- Zerbitzuak eskaini edo udal iharduerak burutzeagatik ezarritako prezio publikoen ordenantza arautzailearen 8.3 atala eranskinean azaltzen diren zehaztapenetara aldatu.

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoa.

HIRUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ez bada, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.”



MENDAROKO
UDALA

**ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL
IHARDUERAK BURUTZEAGATIK
EZARRITAKO PREZIO PUBLIKOAK**

**PRECIOS PUBLICOS POR LA PRESTACION
DE SERVICIOS O LA REALIZACION DE
ACTIVIDADES MUNICIPALES**

8.3.-

8.3.-

3 -.- UDAL ERAIKINETAN ANTOLATUTAKO
KULTUR EKIMENAK

3 - - INICIATIVAS CULTURALES ORGANIZADAS EN
EDIFICIOS MUNICIPALES

Ordainduko den sarreraren kalkulua egingo da ikusikizuna eskainiko duen taldearen ordainsariaren arabera (BEZ gabe):

El cálculo de la entrada a pagar se hará en función de la retribución del equipo que ofrecerá el espectáculo (sin IVA):

• 2.000 euroraino: sarrera	5	€	• Hasta 2.000 € de ingreso
• 2.000 -5.000 euro bitarte	8	€	• Entre 2.000 euros y 5.000 euros
• 5.000 eurotik gora	12	€	• Más de 5.000 euros

Helburutzat ondorengo interes soziokulturaleko arloak sustatzea helburu duten kultur ekimeneztat sarrerak txikitu edo dohan izan daitezke denetzat edota kolektibo zehatzentzat: parekidetasuna, drogomenpekotasunaren prebentzioa, familia eta gazteria eta euskara sustatzea eta transmititzea.

Las iniciativas culturales que tengan como objetivo la promoción de las áreas de inspiración sociocultural de la paridad, la prevención de las drogodependencias, la familia y la juventud y la promoción y transmisión del euskera podrán ser minoradas o gratuitas de forma generalizada o para ciertos colectivos.

Ikuskizunaren kostua kontuan izanik, antolatzen duen ba tzordeak tarifa horiek 20 eurora arte igotze ko erabakia hartu ahal izango du.

En función del coste del espectáculo la comisión organizadora podrá acordar el incremento de estas tarifas hasta un máximo de 20,00 €

LAUGARREN PUNTUA. UDAL PARTZUERGOKO KIDE IZATEKO AKORDIOA.-

Udalbiltza Partzuergoa borondatezko izaera duen elkarte bat da, erakunde publikoaren kontsideroa izango duena, nortasun juridiko propioarekin eta bere helburuak betetzeko erabateko ahalmenarekin. Espainiako toki erregimenari buruzko legerian, eta bereziki Toki Erregimeneko Oinarrietako 7/85 Legeko 87. artikuluan eta toki Erregimenaren Testu Bateratuko 110. artikuluan xedatutakoaren arabera eraenduko da.

Partzuergoak mugaz bi aldekoa izateko borondatea du nazioarteko itun eta Europako legedian oinarrituta, bereziki 1995eko martxoaren 10eko Baionako Itunean, zeinaren arabera Frantziako Errepublikako udalek Partzuergo honekin bat egin baitezaketen.



MENDAROKO
UDALA

Mugaz bi aldeko lankidetzarako lurralde eremua Nafarroako Foru Komunitateak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Euskal Hirigune Elkargoak osatzen dute, eta bereziki eremu horretako udalek.

Partzuergoaren helburuak dira, elkartutako erakundeen osoko garapena eta beren arteko elkarlan instituzionala bultzatzea, elkarrekin batera lan eginez beren lurralde-eremuko lurralde, gizarte eta kultur antolamendua lortzeko. Jomuga horretara iristeko egoki deritzon tresnak medio, garapen estrategiak landu eta baliatuko ditu.

Deialdiarekin batera, partzuergoaren estatutuen dokumentua banatu da.

Aurrekontuan jaso da erakunde honetako partaide izateko egin behar den ekarpen ekonomikoa, 4.000 €, hain zuzen ere.

Horregatik guztiagatik, Osoko Bilkurari honako akordio hauek hartzen ditu ahobatez:

1.- Mendaroko Udala "Udalbiltza Partzuergoa"rekin eta bere estatutuekin bat dator, eta bertan sartzeko eskaera luzatzen dio partzuergo horren Kontseilu Nagusiari.

2.- 4.000€ko ekarpena onartzea 2024ko aurrekontuei egotzita, partzuergoaren eraketa gastuak zein harturiko konpromisoak bilduko dituen.

3.- Urtero dagokion kuotaren ordainketa egitea.

BOSTGARREN PUNTUA. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA MENDAROKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN LUZAPENA ONARTzea, ETXEKO ZERBITZUA FINANTZATZEKO.-

1.- Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.

II.- Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELD) jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan. Bestalde, udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

III.- Legearen eskumen-banaketa arabera, zerbitzu hori udalaren eskumen-eremuan ematen bada ere, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea egiten ez den bitartean, udalak, berak bakarrik, ezin du bere gain hartu Etxeko laguntza zerbitzuaren finantzaketa. Ez, behintzat, horrek intentsitate- eta estaldura-mailak murriztea ekarri gabe, aipatutako xedapen iragankorrak berariaz debekatzen duen bezala.

IV.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta etxeko laguntza-zerbitzuaren erabilitzaileei ematen zaien arreta hobetzeko asmoz, 2018an lankidetzeta-hitzarmen bat formalizatu zuten, eta 2021eko irailaren 30ean amaitu zen haren



MENDAROKO
UDALA

indarraldia. Bertan, zerbitzua finantzatzeko sistema arautzen zen.

V.- Osoko Bilkurak 2022ko urtarrilaren 26an hartu zuen akordioaren bidez, aho batez onartu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Mendaroko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko.

V.- Mendaroko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabilzaileenganako arreta hobetzeko, eta eskumenen berrantolaketan urratsak emateko xedez, bidezkotzat jo dute beste lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea, zerbitzuaren finantzazioa sistema arautze aldera, 2021etik 2023ra doan aldirako.

VI.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Mendaroko Udalaren arteko hitzarmen honen xedea da udalerrian mendeko gisa kalifikatuta daudenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei ematen zaien Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea, Erakunde arteko Mahaiak alde aurretik horren aldeko akordioa hartu ostean.

VII.- Arestian adierazi den moduan, indarrean dagoen hitzarmena 2023ko abenduaren 31n bukatuko da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu du arestiko hitzarmena 2024. urtean luzatzea, hitzarmenaren edukian, aurrekontuko partidetan, zerbitzuaren orduengatik tarifaetan eta Etxeko Zerbitzuan ezarri beharreko hobekuntzetan inolako aldaketarik egin gabe.

Horregatik guztiagatik, Osoko Bilkurari honako akordio hauek hatzen ditu ahobatez:

Lehenengoa.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Mendaroko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena luzatzeko onarpena ematea, hartara, Etxeko Laguntza Zerbitzua 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra finantzatzeko.

Bigarrena.- Alkate jaunari eskumena ematea hitzarmena sinatu dezan, zeina administrazio-agiri baten bidez formalizatuko baita.

Hirugarrena.- Akordio hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Mendaroko Udaleko Kontu-hartzaitza Sailari jakinaraztea, legez ezarrita dagoen eran; eta, halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki taulan eta Udalaren gardentasun Atarian argitaratzea.

SEIGARREN PUNTUA. MOZIOA GUTXIENEN PENTSIOA 1080.-

EHPMk Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak zuengana jotzen du MENDAROKO Udalaren osoko bilkuran mozio bat onar dezazuen, gure funtsezko aldarrikapenetako bat babestuz: pentsioetako gortien gortien 1080 euroko diru-sarrerak izateko bermatzea, 14 ordainsaritan.

Idazki honekin batera doakizu Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean egin eta aurkeztu dugun txosten laburtua eta osoa. Bertan eskatzen eta justifikatzen dugu errebindikazio hori, nola gauzatu eta zenbatesten dugu kostua. Txostena eskari honekin hasten da:



MENDAROKO UDALA

"EHPMk egindako txosten honen bidez, 2023rako gutxieneko pentsioa 1080 eurotan ezartzeko gure bereha/ako eskaria bultzatu nahi dugu. Eskari hori Estatuko Gobernuari zein EAeko eta Nafarroako gobernuari zuzentzen diegu; azken horiei, gainera, eskatzen diegu, gaur egun 783 eurotan dagoen gutxieneko pentsioa finkatzen ez den bitartean, gutxieneko pentsio hori 1080 eurora arte osa dezatela hamalau ordainsaritan.

Txosten honekin urrats bat gehiago ematen dugu gure eskariaren azalpenean, eta EAeko eta Nafarroako beharrezko aurrekontuaren zenbatespen ekonomikoa ka/kulatuko dugu. "

Gainera, txosten horretan (ikus dezakezuen bezala) adierazten dugu eskaera hori premia sozial urgentea eta justiziazkoa dela, erakunde publikoek herritarrei bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako; baldintza horiek, lanetik etorritako diru-sarrerarik ez duten adineko pertsonen eta pentsiodunen kasuan, gutxieneko diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.

1080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeak nabarmen murriztuko luke pentsioetan dagoen genero-aldea. Bizi-kostuaren igoeraren arabera pentsioen balioa EZ handitzearen ondorioak nabarmenak dira, txostenaren 14. orrian ikus daitekeen bezala: "... egiaztatzen dugu azken urteetan {2011tik 2023ra} LGS Lanbide arteko Gutxieneko So/data 641,40 eurotik 1080 eurora igo de/a, boina gutxieneko pentsioa 601,40 eurotik 783 eurora baino ez da igo. Pentsioak so/data geroratuak dira, zabalantzarik gabe, eta haien zenbatekoa zuzenean finkatu dogo jasotzen diren so/datekin; beraz, gutxieneko pentsioak ere LGS izan behar du erreferentzia gisa. Onartezina da 2011n Gutxieneko Pentsioan LGSren % 93,7 izatea eta 2023an % 72,5 izatea'

Gaur egun, bizi-kostuaren hazkunde esponentziala dela eta, gero eta pentsiodun gehiagok galtzen dituzte etxebizitza osasungarria eta beren beharretara egokitua izateko aukerak, elikadura osasungarria, haien osasuna eta mendekotasunari erantzuteko arreta eraginkorra bermatzea, etab. Gaur egun, EAeko 167.718 pentsiodunek 1080 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte pentsioengatik; gehienak emakumeak dira.

Gutxieneko pentsioaren aldagai guztiak emakume izena dute. Genero- ezberdintasunean ikusten da hori, eta horren aurrekaria da soldaten ezberdintasuna eta emakumeen alde bateko esleipena ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari, ugalketaren eta zaintzen eremuan.

1080ko aldarrikapen horrek duela bost urte baino gehiagotik gure mobilizazioetan parte hartu duten milaka pertsonen ematen dioten zilegitasuna du.

Ondorioztatzen dugu ez dagoela arrazoi ekonomikoa edo politikoa ez egiteko, eta ezin dugu egun bat gehiago itxaron.

1. EAeko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari demandatu, 1080 eurora arte osatu dezaten pentsiodunen gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

2. EAeko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari jakinaraztea udal honen osoko bilkuran hartutako erabakia, 2023.12.21 egun honetan.

Horrela bada, Udaltzarak EAJ taldearen abstentzioarekin eta EHBILDU taldearen aldeko botuekin onartzen du mozioaren eskaera.



MENDAROKO
UDALA

ZAZPIGARREN PUNTUA. ALKATETZAREN EBAZPENAK.- 2568/1986 Dekretu Errealeko 42 artikulua arabera, azkeneko udalbatzatik gaur egunerarte Alkatetza honek emandako Ebazpenen berri ematen da: 282/2023 zbkik 296/2023 zbkira.

282/2023: Transferentzi bidezko kreditu aldaketa.

283/2023: 2024rako egutegi fiskalaren onarpena.

284/2023: Arnori dirulaguntza zuritzea eta 2. zatia ordaintzea.

285/2023: Tximinien altura murrizteko lizentzia, Andoneikua Etorbidea, 14

286/2023: 2024rako Ibilgailuen zergaren gaineko salpuespena eskaria desgaitasunagatik, B.T. L. EZEZKOA.

287/2023: Amaia Arriola Mandiolari Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuagatik konfusioz kobratutako 621,54 euroren itzulketa egin.

288/2023: Transferentzi bidezko kreditu aldaketa(gabonetako argiak)

289/2023: Esleitzea EULEN, S.A, enpresari, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez eraikuntzetako instalazio termikoen mantentze zerbitzua kontratazeko esparru akordiotik" eratorritako kontratu eratorria

290/2023: Azaroko fakturak 2.zatia, 15 eta 16 erlazioak: 198.445,10 €.

291/2023: Bigarren aldiz baimentzea eta urte batez luzatzea, Ibilgailuen aseguru poliza kontratua BILBAO COMPAÑIA ANONIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.

292/2023: "MENDAROKO UHOLDE ARRISKURAKO LARRIALDI PLANA, KILIMON ETA DEBA IBAIAK" ONARTZEA

293/2023: SURUPACEANU NICOLAE jaunari, biztanleen erroldan behar ez bezalako inskripzioagatik baja ematea, ez baita udalerrian bizi.

294/2023: JOSE M^a LINAZASORO 5ean FATXADA BIRGAITZEA

295/2023: Odol emaleen dirulaguntzaren zuriketa onartzea

296/2023: Andra Mari Jai Batzordearen zuriketa onartzea eta bigarren zatia ordaintzea

ERREGU ETA GALDERAK.-

Iñaki Arregik hitza hartu eta dio urriko soldaten igoera dela eta, bere nahia dela berari dagokion diru hori eguneko zentrorra bidera dadin. Horretarako, soldata igoeragatik kobratu beharko lukeena emango zaio eta berak eguneko zentrorra bideratuko du.

Aztertzeko gai gehiagorik ez daudenez, Alkate-Lehendakariak 19:20-etan bilkura altxatzen du. Guzti honen Akta jasotzen delarik, nik Idazkari-Kontuhartzaile moduan, Ziurtatzen dut.

O. I.,
ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA